

# IRUÑA

- Haurrendako guneak
- Gazte eremua
- Zezensuzkoa
- Ekitaldiak
- Azokak
- Barrakak
- Su artifizialak
- Kolektiboendako guneak
- Tren turistikoa
- Eraso sexistei aurre egiteko
- Hotela
- Aterpetxea
- Komun publikoak
- Komun irigarriak
- Dutxa publikoak
- Taxiak
- Gasolindegia
- Kontsigna
- Galdutako objektuak
- Antzokia
- Museoa
- Udal-merkatuak
- Postetxea
- Igogailua
- Disuasio-aparkalekia
- Ordainpeko aparkalekia
- Autokarabanendako eremuak
- Begiratoiak
- Osasun zentroak/ospitaleak
- 24 orduko botika
- 12 orduko botika

- Oinezkoen eremua
- Kale moztua trafikoarentzat
- Sarrera mugatua
- Entzierroa

**Iruñeko Turismo Bulegoa**  
 Udalexe Plaza. 31001 Iruña  
 Tel. +34 948420700 / +34 948420420  
 oficinaturismo@pamplona.es


**Larrialdia** **092 Udaltzaingoa**

Reyno de **Navarra** **Nafarroako** Erresuma



[www.sanferminespamplona.es](http://www.sanferminespamplona.es)

**PAMPLONA** ES MUCHO MÁS ASKOSZ GEHIAGO DA



ESTADIO EL SADAR ARENA NAVARRA-NAFARROA  
 UPNA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA



# PAMPLONA ! ES MUCHO MÁS ASKOZ GEHIAGO DA

TURISMO Iruña

Iruña kokapen ezin hobe duen hiria da, eta historia gailena duena. Hiriko katedral eta eliza gotortuak indartsu albatzen dira, haren Erdi Aroko iraganaren oroigarri; eta Errenazimentuko harresiak zein Ziudadela, berriz, XVI. mendetik aitzina gotor-hiri gisa zeukan garrantziaren erakusle dira. Donejakue bidearen aztarna agerian dago Iruñeko egituraketan, eta egun inoiz baino biziago dago. Asko dira apaingarri dituen parke eta lorategiak; eta askotariko gastronomia gozoarekin batera, bizi-kalitate desiragarria islatzen duen beste erakusle bat dira. Eta, txoko guzti-guztietan, sentitzen da urtero uztaillaren 6an, sanferminak hastean, hiria inguratzen duen emozioa. Hori guztia, eta askoz ere gehiago, dugu Iruña.



## Iruña harresiak dira

- 1. San Bartolome gotorlekua** (XVIII. mendea): harresiaren eraikuntzako azken garaikoa.
- 2. Labriten bastioia** (XVI. mendea).
- 3. Zaldi Zuriaren zokoa - Redingo bastioia:** Redingo gotorlekuaren ondoan, behatoki honek harresiez kanpoko hiriarren zein Arga ibaiaren ikuspegi ezin hobeak ditu. Hemen dago Solastokiko Gurutzeta.
- 4. Frantziako portalea edo Zumalakarregirena:** harresiak jatorrian sei ate zituen, eta hauxe da bere horretan dagoen bakarra, leku berean eta 1553an eraiki zeneko itxura berberaz. XVIII. mendean, zubi altxagarria eta kate-sistema gordetzen dituen bigarren atetzarra erantsi zioten.

- 5. Errege-erreginen jauregia (Nafarroako Artxibo Nagusia):** antzinako Errege-erreginen jauregia XII. mendekoa da, eta 2003an Rafael Moneok eraldatu zuen, 1000. urtetik gaur egun arte konterbatu diren nafar dokumentuak gordetzeko egoiztan bihurtuz. Kanpokaldean elurtegia konterbatzen da, izoztutako elur-puskak mantentzen zituen Erdi Aroko eraikina, janaria freskatu eta gordetzeko.
- 6. Portale Berria.**
- 7. San Nikolaseko portalea.**
- 8. Taconerako portalea.**
- 9. Ziudadela:** 1571tik 1645era eraikitako gotorlekua da, bost txokoetan bastioi bana dituen pentagono erregularra. Hauxe bide dugu Errenazimentu espainiarren arkitektura militarrean eredurik hobereana.

- 10. Udaletxea eta Udaletxe plaza:** eraikinaren fatxadaren Barroko berantiarra eta Neoklasikoa (XVIII. mendekoa) nahasten dira, gainontzekoa XX. mendekoa bada ere. Jatorria 1423koa da, Karlos III.ak Erdi Aroko burguen arteko elkargunea zen lubanarroan eraiki zezaten agindu zueneko.
- 11. San Domingoko merkaturia** (1876): hiriko udal-merkaturik zaharrena da.
- 12. Portalapeko belena.** San Zernin burguko Erdi Aroko harresien aztarnak ikus daitezke. Jatorrizko Erdi Aroko mailan, harresiaren oinarria osatzen duen arku-galeria ikus daiteke, baita 1276ko gerran (Nabarrerriako Gerra) erabilitako katapultako bola-jaurtigaiak ere.

**13. Kondestablearen jauregia eta Sarasate museoa:** 1550 eta 1560 bitartean Luis Beaumontekoa Nafarroako kondestableak eraikitako jauregi-etxea da. Jauregia apezpiku-egoitza izan zen, 150 urtez, eta behin-behineko udaletxea, zortzi urtez, 1752az gerotik. Barruan, Pablo Sarasate biolin jotzaile iruindarrari eskainitako museoan, hark hiriarri emandako objektu pertsonalak erakusten dira.

**14. Kontuen Ganbera** (XIII. mendea): noblezia-jauregia izan zen, bertan Erresumako Kontuen Auzitegia kokatu zuten arte, 1524tik 1836ra.

**15. San Nikolas eliza** (XII. mendea): gotorleku-eliza erromanikoa da, gotikorako trantsiziokoa. Erdi Aroko freskoen hondakinak eta organo barroko bat dauka.

**16. San Zernin eliza:** XIII. mendeko eliza gotikoak atari arkupeiduna dauka, eta jatorrian bere defentsa-betekizuna oso garrantzitsua zen bertako biztanleentzat. Hortxe, Bideko Ama Birjinak eta San Saturninok, Iruñeko zaindarien, kapera barrokoa eta irudia dauzkate, hurrenez hurren.

**17. Gazteluko plaza:** hiriarren bihotzat jotzen da. Bertan izan dira azokak, lehiaketak, elkarretaratze politikokoak, baita zezenketak ere 1844a arte. Haren izenak XIV. - XVI. mendeetan Xabier kalearen aldean zegoen gaztelua du jatorri.

- 18. Nafarroako jauregia,** XIX. mendekoa.
- 19. Foruen monumentua,** XX. mendekoa.
- 20. Nafarroako Parlamentua,** XIX. mendekoa.
- 21. Eraikin modernistak,** XIX. mendekoa.
- 22. Redin eta Cruzaten jauregia,** XVII. mendekoa.
- 23. Ezpeletaren jauregia,** XVIII. mendekoa.
- 24. Gendulaingo kondeen jauregia,** XVIII. mendekoa.

- 25. Rozalejoko markesaren jauregia,** XVIII. mendekoa.
- 26. Goienetxetarren jauregia,** XVIII. mendekoa.
- 27. Nafar-Tafallatzen jauregia,** XVIII. mendekoa.
- 28. Done Jakue eta Domingo Santuaren eliza,** XVI. mendekoa.
- 29. San Joan apaizgaitetia eta Udal Artxiboa,** 1734koa.
- 30. Agustindar Errekoleten basilika,** 1624koa.
- 31. Aldapako San Fermin eliza,** 1701ekoa.
- 32. San Agustin eliza,** XVI. mendekoa.
- 33. Santa Zeziliako iturria,** XVIII. mendekoa.
- 34. Neptuno Hauraren iturria,** XVIII. mendekoa.
- 35. Errekoletoen iturria,** XVIII. mendekoa.
- 36. Ongintzaren estatua** (La Mariblanca), XVIII. mendekoa.



## Iruña Bidea da


**37. Magdalenako zubia:** XII. mendekoa da, eta Kultura-intereseko Ondasun eta Monumentu Historiko-artistiko izendatuta dago. Iruñean Donejakue biderako sarbidea da.

**38. Andre Maria Erreginaren katedrala eta Occidens erakusketa:** XIV. eta XV. mendeetan eraiki zuten, aurretik tenplu erromaniko bat zegoen lekuan. Ventura Rodríguezen lanik gorena den fatxada neoklasikoaren atzean, Erdi Aroko sekulako tenplu bat dago ezkuturik, 26,8 metroko altuerako nabe ikusgarri bat, erdian, eta gotikoan munduko lanik gorentzat jotako klastro bat dituen.

**39. Artzapeziku-jauregia.**

**40. Kale Nagusia.**

**41. Ultreia, Erromesei harrera egin eta Donejakue Bidea interpretatzeko zentroa:** Donejakue bidea eta horren historia ezagutzeko eta hedatzeko gunea.




## Iruña berdea da

- 42. Arantzadiko parkea.**
- 43. Runa parkea.**
- 44. Trinitariosko parkea.** Trenaren parkea: trengetoki zahar batean giro-takota zirkuitua, trenbideak dituen, eta tren-ibilbide bat egiteko aukera ematen duena.

- 45. Santa Engrazia zubia.**
- 46. San Pedro zubia.**
- 47. Media Luna parkea** (1935): Víctor Eusak ilbehera itxuraz diseinatu, estilo erromantikokoa da. 43 zuhaitz-espezie dauka, sekuaia erraldoiak besteak beste, baita zenbait ugaztun eta hegazi ere. Egundoko begiratokia dauka Magdalenako baratzei eta Caparrosoren erroterari begira.
- 48. Taconerako lorategiak** (1830): Iruñeko parkerik zaharrena da. 1830etik aurrera hiriko zonalde erromantikoen eta exotikoenetako bat bilakatu zen, eta hainbat lore eta zuhaitz-espezie –sekuoia erraldoia eta Japoniako sasiakazia, besteak beste–, bide, eserleku eta iturri dauka. Bertatik ikuspegi ederra dago, eta lubanarroetan orein, ahate, oilo eta paumak bizi dira elkarrekin, erdi aske. XVII. mendeko bi portale dauka, San Nikolasekoa eta Taconerakoa.
- 49. Antoniutti parkea - Skate park.**
- 50. Gaztelugibeleko parkea:** 300.000 metro koadroko azalera du, eta Ziudadelako glazisetan dago, lubanarro eta harresietaranzko malda leunetan. XVII. mendetik pasealekua izan da.
- 51. Yamaguchi parkea eta Galaxiaren Lorategia:** 1997ko parke honek ekialdeko etorria du, diseinuan Japoniako paisajista batzuek parte hartu dute, eta Japoniako kulturakoak diren apaingarriak dauka. Bertan Galaxiaren Lorategia dago (500 zuhaixka baino gehiagoz, izarrak, kumulua, izarrarteko hautsa eta zulo beltza irudikatzen dituen Esne Bidearen eskalako erreplikak).
- 52. Arga ibaiaren parkea.**
- 53. Donejakue Bidearen parkea.** Donejakue bidearen sarreran dagoen parke honek odolezko noria bat du; horixe da hirian gorde den animalia-trakziozko asmakizun hidrauliko bakarra. Hari buruzko lehen agiriak 1606koak dira eta Josefinen komenturekin lotzen dira, bertako baratze zaharrean baitago.

## ZER IKUSI IRUÑEAN



## Iruña sanferminak dira

**54. San Lorentzo eliza:** bertan San Ferminen kaperak dago. Egungo fatxada 1901ekoak da eta Florencio Ansoleagak diseinatu zuen. Barnealdeak gurutz grekozko oinplanoa du, lauki batean sartuta. Ikusgarriak dira kupulek osatzen duten irudi geometrikoak eta goaldeari buru ematen dion linterna.

**55. Gaseko eskortak:** eraikuntza modernokoak eta grafiti-estiloko horma-pinturez apainduak, sanferminetako entzierroetan parte hartzen duten ganadutegietako zezenak gordetzen dituzten eskortak dira. Haren izenak bertan XIX. mendean zegoen gas fabrikari erreferentzia egiten dio.

**56. Espacio Sanfermin! Espazioa:** sanferminei buruzko esperientzien zentroa.

**57. Eskortak eta San Domingoko aldapa:** entzierroaren abiapuntua; bezperako gauean bertan egiten dute lo zezenek. Hasieran San Ferminen irudia duen horma-hobia dago, zeini entzierroaren aurretik korrikalariak eskari bat abesten baitote.


**58. Udaletxe plaza:** Iruñeko Udaletxea buru, bertatik botatzen da urtero uztaillaren 6an sanferminei hasiera ematen dien Txupinazoa.

**59. Estafeta kalea:** ziur aski mundu osoan ezagunena den kaleetako bat da, izan ere bertatik sanferminetako entzierroa igarotzen baita. Haren izenak XVIII. mendean bertan kokatuta zegoen Iruñeko lehen postetxea du jatorri.

**60. Zezen-plaza:** 1922an inauguratua eta sanferminetako entzierroak direla-eta nazioartean ezaguna, Espainiako bigarren zezen-plazarik handiena da, eta munduko laugarrena, 19.721 ikusleendako lekua duelarik.

**61. Entzierroaren monumentua:** Rafael Huerta eskultoreak egindako brontzezko artelana da; bere horretan abiki du korrikalarien eta haien atzetik segika dauden zezenen lasterketaren ueña.

**62. Iruña Kafea:** 1888an sortua, horren irekierak hirian argi elektrikoaren iritsiera inauguratzeko balio izan zuen. Ernest Hemingwayren nahitaezko bisita, eta bertan girozten du *Fiesta* eleberraren zati handia.



## Mugitu bizikletaz!

Argazkiak: Iruñeko Udal Artxiboa  
Lege-Gordailua: NA 386-2019

